

## NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Alepoko (Siria) marista urdinak, 2016ko Elkartasunaren Nazioarteko "Nafarroa" Saria

*Epaimahaiak aintzatetsi du maristek, beren bizia ere arriskuan jarriz, hiria suntsitzen ari den gerraren erdian kaltetutako pertsonen ematen dieten laguntza.*

Ostirala, 2016.eko irailak 30

Alepoko (Siria) Anaia Maristei, marista urdinak deituak direnei, 2016ko Elkartasunaren Nazioarteko "Nafarroa" Saria eman zaie, gatazka armatuaren gunean bertan egiten duten lanagatik: beren bizia ere arriskuan jartzen dute gerrak kaltetutako pertsonen laguntzeko, bai hirian bizi direnei, bai herrialdeko beste inguru batzuetatik iritsitakoei ere.



Un marista azul juega con niños y niñas refugiadas.

Epaimahaiak era berean azpimarratu du haiek eta beraiekin boluntario ari direnek beste erakunde kristau, musulman eta akonfesional batzuekin sarean egiten duten lana, bai eta gerra hasita zegoenean Alepon geratu izana ere, biztanle ahulenei laguntzen egina zuten ibilbide luzeari jarraipena emanez.

Marista urdinen asmoa da sariaren diru-kopurua, 15.000 euro, Siriako gatazkaren ondorioz errefuxiatu direnentzako giza laguntzako eta larrialdietako programetara bideratzea eta, horrez gain, haurrentzako hezkuntza-programetan ere erabiltzea. Elkartasunaren Nazioarteko "Nafarroa" Saria Foru Gobernuak eta Laboral Kutxak ematen dute elkarrekin, eta nazioarteko kooperazioaren edozein esparrutan nabarmentzen diren erakundeak edo pertsonak saritzen ditu.

Sarituen izena ostiral honetan jakitera eman du txirrindulari-ohi profesional eta epaimahaiko lehendakari Miguel Induráinek, Nafarroako Jauregian egindako prentsaurrekoan. Bertan hitz egin dute, baita ere, Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak eta Laboral

Kutxako lurralde-zuzendari Javier Cortajarenak.

### **Marista urdinak**

Anaia Maristak 1904tik daude Sirian, mende honen hasieran Alepon bakarrik zeuden arren. Gerraren hasieran, 2011n, erlijioso hauek erabaki zuten hiri horretan geratzea eta beren lana gatazka armatuaren ondorioz ihes egindakoei laguntzera bideratzea, kolektibo hori oso ugaria izaten hasia baitzen. Hala sortu zen "marista urdinak" izeneko taldea, erlijioso-komunitate batek eta berrogeita hamar bat boluntariok osatua.

Beren lana burutzen dute kristauek "Djabal Al Sayde" (Ama Birjinaren muinoa) eta musulmanek "Cheikh Maksoud" deituriko auzoan, Alepoko iparraldean. Turkiako mugetarako eta errefuxiatuen kanpamenduetarako bidean, herrialde barnetik iristem diren askoren helmuga da, baina baita Alepoko biztanle askorena ere, haien etxeak gobernuaren eta matxinoen arteko borroken erdian baitaude.

Gaur egun, maristen programen artean azpimarratzekoak dira etengabe hornikuntza-eteteak jasaten dituzten auzoetan bizi direnentzako andelak egunero garbitutako urez bete eta banatzea, 800 familia baino gehiagori premia biziko elikagaiez betetako otarrak ematea; 550 laguni egunero janari beroa banatzea; eta bularreko haurrentzako esnea eta 10 urtetik beherakoentzako esne-hautsa banatzea. Gainera, ihes egindako pertsonen ostatu hartzen laguntzen diete; jaurtigai, mortero edo balek zauritutako pertsonen osasun-laguntza ematen diete; eta adingabeentzako hezkuntza-jarduerak antolatzen dituzte.

Siriako gerrak, eta zehazki Aleporen setioak eta bonbardaketak, milioi bat pertsona baino gehiago Turkia, Libano, Jordania eta Iraken instalatutako kanpamentuetan errefuxiatuta egotea eragin du. Horien erdiak adingabeak dira. Era berean, kalkulatzen da 350.000 lagun hil direla eta 9 milioi herrialdearen barnean leku batetik bestera dabilzala.

Elkartasunaren Nazioarteko "Nafarroa" Sarirako hautagaitza SED (Elkartasuna, Hezkuntza eta Garapena) erakundeak aurkeztu du.

### **Elkartasunaren Nazioarteko "Nafarroa" Saria**

Gorago adierazi denez, sari honen bidez Nafarroako Gobernuak eta Laboral Kutxak aintzatetsi nahi dute nazioarteko kooperazioaren edozein esparrutan beren ibilbideagatik nabarmentzen diren erakunde, GKE edo pertsona fisikoen lana, bereziki Nazio Batuen agendak 2030era arte markatzen dituen [Garapen Jasangarriaren Helburuak](#) lortzeko egiten dutena, hau da: pobrezia amaitzea, desberdintasunaren eta injustiziaren kontra borrokatzea, eta klima-aldaketari aurre egitea.

Era berean, Nafarroako herritarrak kontzientziatu eta sentsibilizatu nahi dituzte pobretutako herrialde eta herrietan sektore kaltetueneren alde egindako borondatezko lan solidarioak duen garrantziaz.

Nafarroako Gobernuaren eta Laboral Kutxaren artean finantzatzen dituzte saria kudeatzeko gastuak eta sariaren diru-kopurua, 15.000 eurokoa.

Aurtengo edizioan 13 hautagai aurkeztu dira, eta horietatik sei finalista aukeratu dira: Proactiva Open Arms, Espainiakoa; Fundación Promoción Social de la Cultura, Espainiakoa; Comisión Española de Ayuda al Refugiado (CEAR), Espainiakoa; Sabes. Asociación Saneamiento Básico, Educación Sanitaria y



Un hermano marista prepara junto con personas voluntarias bolsas de comida para refugiados.

Energías Alternativas, El Salvadorekoa; Asociación Marroquí para la Integración de los Inmigrantes, Espainiakoa eta Marokokoa; eta Siriako Anaia Maristak.

### **Aurreko sarituak eta epaimahaia**

Aurreko urteetan sari hau jaso dute Juan Ciudad Fundazioak eta Paciencia Melgar serorak (2014); Martha Pelloni moja argeninarrek (2013), Mama Tunza keniarrak (2012), Manuel Elkin Patarroyo zientzialariak (2011), Creative Handicrafts GKEak(2010), Aguarico-ko Bikariotza Apotolitoak (2009), Mama Samateh Saidy-k eta Wassu Gambia Kafo GKEak (2008), San Joan Jainkoaren Anaiek (2007), "Fe y Alegría" mugimenduak (2006), UNASO erakundeak (2005), Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak (2004), Karitateko Misio Ahizpek (2003) eta Muhhamad Yunnus (2002).

Epaimahai-burua Miguel Induráin txirrindulari-ohi profesionala izan da eta honako hauek osatu dute: Eskubide Sozietako lehendakariorde Miguel Laparra; Laboral Kutxako lurralde-zuzendari Javier Cortajarena; Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle titular Paloma Bescansa; AMEDNAko lehendari M<sup>a</sup> Victoria Vidaurre; Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren Helburuen Kanpainaren ordezkari Xavier Longan; eta Loyola Andalucía Unibertsitateko irakasle titular María Luz Ortega.